

MAO TSE-TUNG'EN OLERKIAK

«Kontxo, kontxo, gizon au be olerkari?», esango daust norbaitek. Bai, Mao be poeta. Kondairak ezagutu dauan diktadurarik gogorrena Txina'n sar-
tu ta ipiñitako gizona, olerkari dozu, ta bikain sa-
marra izan be. Anai arteko burruka garaian, Txina
astindu eben unerik latzenetan, goi-argiak ikutua
nunbait, poema politak idatzi zitun. Gerora, barriz,
1949'garrenean garaitza lortu ondoren, gitxi idatzi
dau, bertsoetan beintzat. Ona, bere liburuetan ager-
tzen diranetatik lau, euskeraz.

1) Mendi-besangak

Mendi-besangak!
Neure zaldia zatatzen dot,
bizkorrago!,
zela itxi bagarik.
Abiatzen naz ta burua jasoten:
zerua iru oiñera dago, irura, neure gaiñ.

Mendi-besangak!
Itxaso zakar iduri, olatu ausiak
jaso ta iraul-erazorik,
burruka zelaiaren erdian
burua zutitu ta ostikoka dagien
millaka zaldien antzean.

Mendi-besangak!
Zeruko urdiñean sartzen dabez
euren mustur zorrotuak.
Aren indarrak bermatuko ezpa-leuz,
orpotik egingo leukie zeruak.

(Mao'ren oarra: Erri-kanta batek diño):

Garazur mendia an, goian dago,
Altxor mendia an, beian,
zerua iru oiñera dago, irura, bakarrik.
Igaroteko, burua makurtu bear dozu
edo zaldiaren bizkarretik jatsi.

2) *Tapoti*

*(Laugarren Muiño ostein, 1933'ko otsaillean
idatzia)*

Gorri, laranja, orimin,
musker, anilezko, more, urdin.

Nok dagi zeruan dantza
ta kolorezko zinta oni bira?

Atertu da euria
ta euzkia da barriroz,
eta atxartea ta munen betertzak
urdinkara dagoz.

Orro dagi, ostera be,
burrukaldi zakarrak.

Bala-zuloakaz nabarturik
agiri dira erriko ormak,
euren ederra geiagoturik.

Eta gaur muiñoen gainak
are dirudie ederragoak.

3) *Nanchang'i eraso*

Bagilla: gure gudaroste bardingeak
ustelari, gaiztoari
erasoten dautsoe,
milla metro luzeko sokaz
erensugea korapillotu naiean.

Kan ibaiaren bestekaldean
lur-zati bat gorri biurtu da,
Huang Hung-Lüeh'ren
Gudarosteari millesker.

Millaka langille ta lugin garailleak
Kiangsi amilka daroe,
ta Liang Hu'ri atsedean bage
erasoten dautsoe.
Laterri-artekoaren sugar beroa,
aize-zurrumbillo ikaragarri lez,
zerutik nire gain jasten da bira-biraka.

4) *1929'ko Urte Barri eguna*

*(Lenengo bertoko errien izenok Fukien pro-
bintzian dagoz; beraz, Mao'k eta Chu'k eguzki
aldera eroezan euren gudarosteak, an gudarako
abialekua jarteko asmotan).*

Ninghua! Chingliu! Kweihua!
Medarra da bidea,
oiana ezkutuz betea,
odolgia labankor.

Norantza ete goaz gaur?
Artez-artez, Wuyi mendi oiñera.
Mendiaren oiñera,
mendiaren oiñera.

An, aizeak zabal-erazoko dau,
pergaminu bat legez,
gure ikurrin gorria.

Igotz'ek euskeraz